# IZEN GEOGRAFIKOEN GLOSARIOA

## Euskal toponimoen normalizazioan erabiltzeko

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2001

**Izen** geografikoen glosarioa. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2001
or.; cm
ISBN 84-457-1779-0
1. Leku-izenak - Euskal Herria - Hiztegiak. I. Euskadi. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
914.601.5/.6+914.479(038)

Argitaraldia: 1.a, 2001eko azaroa

Ale kopurua: 3.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

www.euskara.net/euskalterm

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkiak: Mikel Arrazola

Fotokonposizioa: Flash Composition,
Alda. Rekalde, 6, Bilbao. 48009

Inprimaketa: Flash Impresión,
C/ Doctor Entrecanales, 8, Bilbao. 48002

ISBN: 84-457-1779-0

L.G.: BI-2925-01

# AURKIBIDE OROKORRA

**Atarikoak** .......................................................................... 7

Hitzaurrea.......................................................................... 9
Sarrera .......................................................................... 11
Normalizazio-Batzordea .......................................................... 15
Nola erabili hiztegia ............................................................ 17
Eremu-zuhaitza .................................................................. 19
Bibliografia ...................................................................... 21

**Lehen atala: Euskara-Erdarak glosarioa** .......................... 23

**Bigarren atala: Erdarak-Euskara aurkibideak** ................ 65

Espainiera-Euskara ............................................................ 67
Frantsesa-Euskara .............................................................. 83

# IZEN GEOGRAFIKOAK

ATARIKOAK

## *HITZAURREA*

Euskararen Aholku Batzordearen Toponimiako Batzorde-Atal Bereziak “Toponimiari buruzko jarduketa-plana” ahobatez onartu zuen 2000ko apirilaren 13an. Plan horretan, toponimiaren alorrean egin beharreko lanen lehentasun-maila finkatu zen. Lehentasun-maila handiko lanen artean, “Geografia-toponimiaren hiztegitxoa” egiteko premia aitortu zen, hau da, toponimian erabiltzen diren entitate geografikoen euskarazko izendapenak finkatzea eta glosario bat osatzea.

Horretarako, landuko ziren entitate geografikoen zerrenda finkatzea, bakoitzaren definizioa prestatzea eta normalizazio-proposamenak egitea eskatu zitzaion UZEIri, 2000. urtean erakunde horrek herri-aginteekin izenpetua zuen hitzarmenaren barruan.

Ondoren, aldez aurretik UZEIk landutakoa aztertu eta terminoak adostu eta normalizatuko zituen Normalizazio-batzordea osatu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2001. urtean. Batzorde hori osatzeko, alde batetik, hizkuntzalariak eta, bestetik, geografiako adituak biltzea izan zuen HPSk helburu.

Lan honen guztiaren emaitza duzu esku artean duzun argitalpentxo hau. Ez da, inondik inora, geografiaren eremuko terminologia osoa jasotzen duen lana, zerbait mugatuagoa baizik. Aztergai izango ziren kontzeptuak mugatzeko orduan, bi irizpide nagusi erabili zituen lantaldeak:

1. Euskal Herriaren eremuan aurki ditzakegun entitate geografikoak izatea.

2. Toponimiaren alorreko normalizazio-lanetan beharrezkoak suertatu ohi diren entitateak izatea.

Geografiaren eremua berezitua bada ere, hizkuntza arruntean eremu horretako hainbat termino erabili ohi dira. Hori dela eta, zenbait kontzepturentzat tokian tokiko aldaera ezberdinak aurki daitezke. Baina lan honen helburua ez da ahozko erabilera jasotzea izan, kontzeptu bakoitzarentzako forma estandarra finkatzea baino, bereziki, Euskal Herriko toponimiaren normalizazioan behar-beharrezkoak gertatzen zaizkigun terminoen forma estandarrak finkatzea, hain zuzen.

Mugatua dugu, beraz, egindako lana, baina ez horregatik balio gutxikoa.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet lan honetan parte hartu duten guztiei.

Arlo honetan euskaraz aritzen den edonork lanabes egokia aurkitzea espero dut.

Xabier Aizpurua Telleria
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

## ***SARRERA***

Hiztegi honetan izen geografikoak biltzen direla dio tituluak. Baina, zer adierazi nahi da kasu honetan “izen geografiko” esapidearekin? Alegia, zein da zehazki glosario honen aztergaia? Horri erantzun aurretik, toponimian oinarrizkoak diren kontzeptu batzuk argitzea komeni da.

Leku-izen edo toponimo konkretu batek elementu espezifikoa eta elementu generikoa izan ohi ditu osagai. Har ditzagun, adibidez, *Zadorra ibaia* eta *Urbieta kalea* toponimoak. Elementu espezifikoa toponimoaren izaera berezia identifikatzen duen elementua da, toponimoaren “izen berezia” nolabait esateko; aurreko adibideetako *Zadorra* eta *Urbieta*. Elementu generikoa, berriz, toponimoaren izaera orokorra identifikatzen duena da, toponimoaren “izen arrunta”; *ibaia* eta *kalea* aurreko adibideetan.

Baina bada beste kontzeptu garrantzitsu bat ere: entitate geografikoa. Entitate geografikoa izena duen edo izena har dezakeen geografiako edozein elementu da, elementu natural edo artifiziala (mendia, kaia, trikuharria, plaza,...). Gehienetan, bat datoz toponimoaren elementu generikoa eta entitate geografikoa, baina gerta daiteke berez itsasadarra den entitate bateko toponimoaren generikoa *erreka* izatea, adibidez. Hori gertatzen da maiz desberdintasunak daudelako herri-hizkeraren eta terminologia zientifikoaren artean.

Lehenengo paragrafoan egindako galderari erantzuteko, esan genezake bi irizpide hartu direla kontuan. Batetik, oraintxe definitu ditugun entitate geografikoak izan ditugu aztergai, lurralde bateko toponimia eta topografiako lanak bideratzeko funtsezko zeregina izaten baita bertako entitate-motak zehaztu, sistematizatu eta sailkatzea. Bestetik, Euskal Herrira mugatu gara, gure lurraldetik kanpoko entitateak kanpoan utziz. Hau da, Euskal Herriko toponimia edo topografiako lanetan aztertzeko, izendatzeko, kartografiatzeko edo beste edozertarako erabiliko diren entitateak izan ditugu helburu.

Euskal Herriko entitate geografikoak biltzeko eta zehazteko zereginean bi oinarri nagusi erabili dira, erreferentzia-lanak eta adituak. Euskarazko terminoak biltzeko erabili dira, besteak beste, Deustuko Unibertsitateko DEIKER institutuak toponimian egindako lanak (Eusko Jaurlaritzak eskatuta 1986an eta Eusko Jaurlaritzak eta Arabako eta Gipuzkoako diputazioek eskatuta 1992an), Euskaltzaindiak adostutako oinarrizko zerrenda bat eta J. M. Jimeno Jurioren zuzendaritzapean 1992an Nafarroako Gobernuarentzat mapagintza eta toponimia inguruan egindako lana.

Erreferentzia-corpusaren hustuketarekin batera, funtsezkoa izan da Euskaltzaindiko, unibertsitateko eta administrazioko adituen ekarpena, entitateak zehaztu, hautatu eta finkatzeko lanean.

Urrats honetan, aipagarria izan da hiztegi honetako Normalizazio Batzordearen egitekoa, erakundeen arteko adostasunean oinarrituta batzorde horrek hartu baititu azken erabakiak, betiere normalizazioa helburu izanik eta Euskaltzaindiaren arauak betetzen direla bermatuz.

Guztira, 382 kontzeptu biltzen dira glosario honetan eta denak definizio eta guzti eskaintzen dira. Nolanahi ere, sinonimia dela eta, gehiago dira sarrerak: 600 euskaraz, 415 espainieraz eta 399 frantsesez.

Zenbait hutsune topa daitezke ordainen artean. Hutsune horiek jakinaren gainean utzi dira glosarioan, eta bi arrazoi nagusi daude horretarako. Alde batetik, terminologi lanetan ohizkoa da hutsuneak agertzea, hizkuntz esparru edo komunitate batzuetako hainbat kontzeptuk ez duelako izaten baliokide zehatzik beste batzuetan. Maiz gertatzen da hori, adibidez, zuzenbidean eta administrazioan, herrialde jakin bateko figura juridiko bat besteetakoekin erabat bat ez etortzea, alegia. Horrelakoetan, ez du zentzurik halako terminoak huts-hutsean beste hizkuntzetara itzultzeak. Bestetik, terminologiaren oinarrizko metodologiak agintzen du erreferentzi obra espezializatuetatik jasotzea laneko materiala (tamalez, hau ez da euskaraz beti jarrai

daitekeen bidea). Gerta liteke esku artean erreferentzi obra aski ez izateak eragitea hutsuneren bat edo beste. Horrelakoetan ere, nahiago izaten dugu hutsunea zuri uztea, itzulpenak asmatzen hastea baino.

Bi atal nagusi bereizten dira hiztegi honetan. Lehenengoa eta nagusia euskarazko glosario alfabetikoa da, sinonimoak, definizioak eta erdarazko baliokideak ere eskaintzen dituena. Bigarren atalean erdaretatik euskararako aurkibideak eskaintzen dira.

Amaitzeko, hemen egiten den ekarpena arlo honetan diharduten guztientzat erabilgarri izatea da gure esperantza eta, jakina, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu lan honetan laguntza eskaini duten guztiei.

UZEI

## *NORMALIZAZIO-BATZORDEA*

Deustuko Unibertsitatea:

Nerea Mujika (Geografia irakaslea eta Euskararen Aholku Batzordeko Toponimiako Batzorde-atal Bereziko kidea)

Euskal Herriko Unibertsitatea:

Guillermo Meaza (Geografia Fisikoko Katedraduna)

Euskaltzaindia:

Miren Azkarate (Euskaltzaina, Euskal Herriko Unibertsitateko hizkuntzalaria eta Euskararen Aholku Batzordeko Toponimiako Batzorde-atal Bereziko kidea)
Patxi Galé (Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeko aholkularia)
Mikel Gorrotxategi (Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeko idazkaria)

Eusko Jaurlaritza (HPS):

Mirari Alberdi (Estandarizazio teknikaria eta Euskararen Aholku Batzordeko Toponimiako Batzorde-atal Bereziko kidea)
Araceli Diaz de Lezana (Estandarizazio zerbitzuburua)
Pablo Sagardoy (Geografoa)

Institutu Geografiko Nazionala:

Jose Antonio Telleria (Instituto Geográfico Nacional-eko teknikaria eta Euskararen Aholku Batzordeko Toponimiako Batzorde-atal Bereziko kidea)

UZEI:

Iker Etxebeste

# NOLA ERABILI HIZTEGIA

1. Lehen atala: Euskara-erdarak glosarioa

- Hau da artikuluaren oinarrizko egitura: **Euskarazko sarrera** (letra lodian), *sarrerari dagokion saila* (letra etzanean), definizioa, espainierazko ordaina eta frantsesezko ordaina. Sailak aurrez finkatutako hitz jakin batzuen bidez adierazten dira eta hizkuntzak ISO laburdura batez (es, fr) identifikatzen dira. Adibidez,

> **arroila**
> *Orografia*
> Ibai batek irekitako ibilgu sakon eta estua, horma ia bertikalak dituena.
> **es** foz; garganta
> **fr** gorge

- Sinonimoak sarreraren ondoren jarri dira **Sin**. laburdurarekin.

> **ermita**
> Sin.:baseliza
> *Hornidurak*
> Gehienetan herriguneetatik kanpo egoten den kapera edo santutegi txikia.
> **es** ermita
> **fr** ermitage

- Sinonimoak alfabetikoki tokatzen zaien lekuan jartzen dira eta sarrera nagusira bidaltzen dira **Ik.** dei baten bidez.

> **baseliza**
> Ik. ermita.

2. Bigarren atala: erdara-euskara aurkibideak

- Hiztegiaren bigarren atalean **espainiera-euskara** eta **frantsesa-euskara** aurkibideak eskaintzen dira, UZEIko hiztegietan ohizkoa den moduan emanak.

| | |
|---|---|
| **chantier naval** | ontziola |
| **château** | gaztelu |
| **chaussée** | galtzada |
| **chemin** | bide |

- Erdal sarrera sinonimodunak, multzo oso bezala eskaintzen dira, sarrera izatea tokatzen zaiona estilo lodian eta bestea(k) estilo normalean, haren azpian.

| | |
|---|---|
| **aserradero**<br>serrería | zerratoki |
| **astillero** | ontziola |
| **autopista** | autobide |

| | |
|---|---|
| **serrería**<br>aserradero | zerratoki |
| **sidrería** | sagardotegi |
| **sierra** | mendilerro |

# EREMU-ZUHAITZA

O AURKINTZAK

1 OROGRAFIA

- Lur-goraguneak
- Lurrazaleko sakonuneak
- Lur lauak
- Isurialdeak
- Berezko barrunbeak
- Itsas eta kostaldeko erliebea

2 HIDROGRAFIA

- Berezko ur-masak
- Berezko ur-ibilguak
- Ur-masa eta -ibilgu artifizialak
- Obra hidraulikoak

3 LUR-ERABILERAK

- Basoak
- Sastraka
- Larre eta belardiak
- Lur landua

4 BIZIGUNE IRAUNKORRAK

- Populazio-guneak
- Hirigune-elementuak
- Eraikuntza isolatuak

5 INDUSTRIA

- Industrialdea
- Erauzteko industriak
- Energia ekoizteko zentroak
- Eraikuntza-industria
- Zur eta paperaren industria
- Oinarrizko industria

- Nekazaritza eta elikagaien industria
- Hondakinen tratamendua
- Bestelako fabrikak

6 HORNIDURAK
- Administrazio-zentroak
- Merkataritza-zerbitzuak
- Laguntza-zerbitzuko zentroak
- Kultura-zentroak
- Hezkuntza-zentroak
- Historia eta kulturako toki interesgarriak
- Industria-ondarea
- Osasun-zentroak
- Erlijio-zentroak
- Aisia eta kiroleko guneak
- Ostalaritza
- Ikerketa eta garapena
- Ekonomia eta finantzako zerbitzuak
- Seinaleak

7 KOMUNIKABIDEAK ETA GARRAIOAK
- Aire-garraioa
- Itsas garraioa
- Trenbide-garraioa
- Errepide-garraioa
- Komunikazio eta garraioko bestelako instalazioak

8 BANAKETA POLITIKO-ADMINISTRATIBOA
- Estatua
- Autonomia Erkidegoa, Departamendua
- Lurralde Historikoa
- Udal-eremuaz gaineko entitateak
- Udala
- Udal-eremuaz azpiko entitateak
- Herri-lur eta -larreak

# BIBLIOGRAFIA

«Vocabulario de Términos Geográficos», in: VAZQUEZ MAURE, F.; MARTIN LOPEZ, J.: *Lectura de mapas*, MOPU-IGN, Madril, 1989, 347-367 or.

CANADIAN GOVERNMENT SERVICES CANADA: *TERMIUM. Le dictionnaire électronique bilingue du Gouvernement du Canada. / The electronic bilingual dictionary of the Government of Canada*, Government Services Canada, Kanada, 1999.

COMMISSION DE TOPONYMIE DU QUÉBEC: *Terminologie géographique de la toponymie québécoise*, Bibliothèque nationale du Québec / Bibliothèque nationale du Canada, Québec, 2000.

DEIKER: *Euskal Komunitate Autonomorako kartografiarako entitate naturalei buruzko terminologia geografikoa, toponimiarekiko erlazioan*, 1988.

EHUGET (Euskal Herriko Unibertsitateko Geologoen Euskararako Taldea): *Geologia, hiztegi entziklopedikoa*, Elhuyar, K.E., Usurbil, 1998.

ELHUYAR KULTUR ELKARTEA: *Ingurugiro hiztegi entziklopedikoa*, EJ. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1998.

GEORGE, P. (Zuz.): *Dictionnaire de la géographie*, PUF., Paris, 1974.

GOUVERNEMENT DU QUÉBEC: *Le grand Dictionnaire terminologique*, *Banque de Terminologie. Banque documentaire*, Le Français au bureau, CDROM-SNI, Québec, 1998.

HAEE/IVAP: *Zirkulazioko Hiztegia*. IVAP, Gasteiz, 1998.

HPIN - HAEE/IVAP: *Euskal Herriko Herri Erakundeen Barne Errotulazioa*; HAEE/IVAP; Gasteiz; 1992.

IRIGOIEN, A.: «Izen geografikoak», in: EUSKERA, XXXIII (2. aldia) 1988, 2.

JIMENO JURIO, J. M. (Zuz.), *Nafarroa. Toponimia eta mapagintza / Navarra. Toponimia y cartografía*, Nafarroako Gobernuaren Argitarapen Fondoa, Iruñea, 1991.

JIMENO JURIO, J. M.: «Guía para recogida de Toponimia en Euskalerria».

MINISTERIO DE LA PRESIDENCIA. CONSEJO SUPERIOR GEOGRÁFICO: *Normas cartográficas para la ejecución del mapa topográfico nacional. Escalas 1:25.000 y 1:50.000*. Madril, 1985.

MUJIKA ULAZIA, N.: «Proyecto de normalización de la terminología geográfica asociada a la Toponimia», 1996.

ORPUSTAN, J. B.: «Lexique et suffixes dans la Toponymie Basque d'Habitat (domaines ruraux et maisons) du Moyen Âge en Labourd, Basse-Navarre et Soule. (Communication à la Commission de Toponymie de l'Académie de la Langue Basque)».

SAGREDO GARCÍA, J.: *Geografía*. Diccionarios Rioduero saila. Rioduero, Madril, 1977.

TEJADA ÁLAMO, G.: *Vocabulario geomorfológico*, Ediciones Akal, Madril, 1994.

UZEI: *Biologia/3, Ekologia. Hiztegia*, Elkar, Donostia, 1987.

*Zirkulazioa. Hiztegia*, (Administrazio Hiztegiarekin batera), Elkar, Donostia, 1983.

## Lehen atala: Lexikoa euskaratik erdarara

# EUSKARA / ERDARAK

# A

**abadia**

*Hornidurak.*

Abade edo abadesa baten gidaritzapean dagoen eliza edo monasterioa.

**es** abadía
**fr** abbaye

**abarizti**

*Lur-erabilerak.*

Abaritz-lekua.

**es** coscojar; coscojal
**fr** chênaie de Kermés

**abelbide**

Sin. altxonbide

*Komunikabideak eta garraioak.*

Abere ibiltariek erabiltzen duten bidea, bereziki udako eta neguko bazkalekuak elkartzen dituena.

**es** cañada
**fr** draille

**abeletxe**

*Industria.*

Abere-hazkuntzako jardueran aritzen den etxea.

**es** granja
**fr** élevage

**abereen pasabide**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Abereek errepideak zeharkatzeko eratutako pasabide berezia.

**es** paso de ganado
**fr** passage à bétail

**administrazio-batzar**

Ik. kontzeju

**aduana**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Mugetan, sartu edo irtendako salgaien zergaz arduratzen den administrazioaren bulego edo etxea.

**es** aduana
**fr** douane

**aerodromo**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Hegazkinak lurreratzeko edo aireratzeko prestaturiko lur-saila, horretarako behar den azpiegitura duena.

**es** aeródromo
**fr** aérodrome

**aintzira**

*Hidrografia.*

Lurrazaleko ur-masa iraunkorra, alde guztietatik lurrez inguratuta dagoena.

**es** laguna
**fr** lac

**aire-geltoki**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Aireportuetan, bidaiariei irten aurretik edo heldu ondoren harrera egiteko egoten den eraikin nagusia.

**es** terminal
**fr** aérogare

**aireportu**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Airetiko zirkulazio publikoan geltoki moduan erabiltzeko prestaturiko zelaia eta instalazio-multzoa.

**es** aeropuerto
**fr** aéroport

**akademia**

*Hornidurak.*

Ikasketa berezituak eskaintzen dituen izaera pribatuko hezkuntza-zentroa.

**es** academia
**fr** académie

**akueduktu**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Ura leku batetik bestera eramateko ubide artifiziala, bereziki herri bat urez hornitzeko funtzioa duena.

**es** acueducto
**fr** aqueduc

**aldapa**

Sin. malda

*Orografia.*

Alde bat bestea baino altuagoa duen lur-eremua.

**es** cuesta
**fr** côte; pente

**alfer-lur**

Ik. etze

**alor**

Ik. soro

**altxonbide**

Ik. abelbide

**amezti**

*Lur-erabilerak.*

Ametz-basoa.

**es** rebollar; marojal
**fr** tauzinière

**amildegi**

Sin. erroitz

*Orografia.*

Horma moduko ebaki sakon eta malkartsua.

**es** precipicio; barranco
**fr** précipice

**anbulatorio**

*Hornidurak.*

Gizarte Segurantzako osasun-arretan, mediku espezialistak biltzen dituen lekua.

**es** ambulatorio
**fr** dispensaire

**antzoki**

*Hornidurak.*

Antzerki-lanak antzezteko prestaturiko areto edo eraikina.

**es** teatro
**fr** théâtre

**apaizgaitegi**

Sin. seminario

*Hornidurak.*

Apaizak apaizgorako hezten diren etxea.

**es** seminario
**fr** séminaire

**aparkaleku**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Ibilgailuak aparkatzeko eratutako lekua.
**es** aparcamiento
**fr** parc de stationnement; parking

**araztegi**
*Industria.*
Produktu baten, bereziki uraren, arazketa egiteko industria-eraikuntza.
**es** depuradora
**fr** station d'épuration

**arboladi**
Ik. zuhaizti

**arku**
*Hornidurak.*
Eraikuntza eta sostenguko elementu kurbatua, bi puntu finkoren arteko hutsunea betetzen duena; bereziki monumentu gisa erabilitakoa.
**es** arco
**fr** arc

**arrain-haztegi**
*Industria.*
Arrainak ugaldu edo/eta hazteko eratutako instalazio-multzoa.
**es** piscifactoría
**fr** établissement piscicole

**arrapala**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Portuetan, itsasontziak uretaratzeko edo lehorreratzeko eratzen den malda, gainazal leuna duena.
**es** rampa
**fr** rampe

**arro**
*Orografia.*
Ura ibai nagusi berera isurtzen duten lurren multzoa.
**es** cuenca
**fr** bassin

**arroila**
*Orografia.*
Ibai batek irekitako ibilgu sakon eta estua, horma ia bertikalak dituena.
**es** foz; garganta
**fr** gorge

**arroka**
Ik. uharri

**artadi**
*Lur-erabilerak.*
Arte-basoa.
**es** encinar
**fr** chênaie

**artxibo**
*Hornidurak.*
Dokumentuak, agiriak edo antzekoak sailkatu eta gordetzen diren leku edo eraikina.
**es** archivo
**fr** archives

**astronomia-behatoki**
*Hornidurak.*
Astronomiaren inguruko behaketa sistematikoak egiteko eraikuntza.
**es** observatorio astronómico
**fr** observatoire astronomique

**aterpe**
*Bizigune iraunkorrak.*

Babesa eskaintzen duen etxe edo eraikuntza sinplea, bereziki mendikoa.

**es** refugio
**fr** refuge

**aterpetxe**
*Hornidurak.*

Bidaiarientzat eratutako ostatu merkea, oinarrizko zerbitzuak eskaintzen dituena; behartsuei ostatu edo babes eskaintzen zaien etxea.

**es** albergue
**fr** auberge

**atsedengune**
*Komunikabideak eta garraioak.*

Garraiobideen alboetan, atseden hartzeko eratutako gunea.

**es** área de descanso
**fr** aire de repos

**atsedenleku**
*Hornidurak.*

Hiriguneetatik kanpo atseden eta aisiarako prestatutako lekua.

**es** área de esparcimiento
**fr** aire de détente

**aurkintza**
*Aurkintzak.*

Ezaugarri komun bat duen lurralde-zatia, mugak oso garbi zehaztuta ez baditu ere, inguruko lurretatik bereizten dena.

**es** paraje
**fr** site

**aurrezki-kutxa**
*Hornidurak.*

Aurreztaileen dirua gorde eta administratzen duen finantza-erakundea.

**es** caja de ahorros
**fr** caisse d’épargne

**aurri**
*Bizigune iraunkorrak.*

Eraikin edo eraikin-multzo bat osorik edo zatika lurrera erori ondorengo gerakina.

**es** ruina
**fr** ruine

**aurri interesgarri**
*Hornidurak.*

Interes edo garrantzi berezia duen aurria.

**es** ruina de interés

**autobia**
*Komunikabideak eta garraioak.*

Autobidearen antzeko errepide zabala, baina hark ez dituen ezaugarri berezi batzuk izan ditzakeena (bidegurutzeak, sarbide-irtenbide ez hain antolatuak, etab.).

**es** autovía

**autobide**
*Komunikabideak eta garraioak.*

Ibilgailuentzako errepide zabal eta hesitua, bidegurutzerik gabea eta noranzko desberdineko galtzadak bereizirik dituena.

**es** autopista
**fr** autoroute

**autobus-geltoki**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Autobusak gelditzen diren tokia, bidaiarientzako hainbat instalazioz hornitua.

**es** estación de autobuses
**fr** gare routière; gare d'autobus

**autonomia erkidego**

Sin. foru-erkidego

*Banaketa politiko-administratiboa.*

Espainiako administrazio-sisteman, 1978ko konstituzioan araututako lurralde-antolamenduan autonomia aitortzen zaien erkidegoetako bakoitza.

**es** comunidad autónoma; comunidad foral

**autonomia-erkidegoko errepide nagusi**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Lehentasuna duten errepideen sarekoa ez bada ere, Lurralde Historiko barneko zirkulazioa egituratu eta handik kanporanzko zirkulazio garrantzitsua bideratzen duen errepidea.

**es** carretera básica de la comunidad autónoma

**auzo**

*Bizigune iraunkorrak.*

Osotasuna eratzen duen etxe-multzoa, udal-erdigunetik bereizita egon arren udal horren parte dena.

**es** barrio
**fr** quartier

**auzune**

*Bizigune iraunkorrak.*

Etxe eta kaleak eginez eta hirigintza-zerbitzuak eratuz bizigune berri bihurtzen den lur-saila.

**es** urbanización
**fr** ensemble urbain

**azoka**

Ik. merkatu

**azpiestazio elektriko**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Energia elektrikoa banatzen duen sarea elikatzeko, estalpean edo estalpez kanpo ezartzen diren hainbat transformadore, etengailu, babesgailu, etab.ez osatutako instalazioa.

**es** subestación eléctrica
**fr** sous-station électrique

**aztarnategi arkeologiko**

*Hornidurak.*

Balio arkeologikoa duten tresna, hezur eta bestelako aztarnak dauden lekua.

**es** yacimiento arqueológico
**fr** site archéologique

# B

**badia**

*Hidrografia.*

Itsasoak kostaldean eratzen duen sargunea, golkoa baino txikiagoa.

**es** bahía
**fr** baie

**bainuetxe**
*Hornidurak.*
Bainuak edo ur-terapiak hartzeko prestaturiko etxe edo ostatua.
**es** balneario
**fr** établissement de bains

**baltsa**
*Hidrografia.*
Euri-ura biltzen duen sakonera txikiko aintzira artifiziala, batez ere ureztatzeko edo abereen edanleku gisa erabiltzeko egina.
**es** balsa
**fr** mare

**banketxe**
*Hornidurak.*
Banku-eragiketak egiten diren eraikina.
**es** banco
**fr** banque

**baratze**
Sin. ortu
*Lur-erabilerak.*
Barazkiak, fruta-arbolak edo jateko bestelako landareak lantzeko lurzati ez handia.
**es** huerta
**fr** potager

**barra**
*Orografia.*
Ibai-aho eta itsasadarretan eratzen den hondar-metaketa.
**es** barra
**fr** barre

**baseliza**
Ik. ermita

**baserri**
*Bizigune iraunkorrak.*
Kale-gunetik bereiz dagoen etxea, nekazaritza eta abeltzaintzarako eraikia.
**es** caserío
**fr** ferme

**basilika**
*Hornidurak.*
Antzinatasun, garrantzi edo bestelako arrazoiren batengatik titulu eta pribilegio bereziak dituen eliza.
**es** basílica
**fr** basilique

**baskula**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Zama handiak pisatzeko balantza plataformaduna.
**es** báscula
**fr** bascule

**baso**
Sin. oihan
*Lur-erabilerak.*
Zuhaitzez betetako eremu zabala.
**es** bosque
**fr** bois; fôret

**basozaintzako dorre**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Mendi eta basoen egoera behatzeko ezartzen den dorre-moduko egitura.
**es** torre de vigilancia forestal
**fr** tour de surveillance forestière

**batzar-etxe**
*Hornidurak.*
Historikoki Batzar Nagusiak bildu izan ohi diren eraikin berezia (hots, Gernikakoa eta Avellanedakoa).
**es** casa de juntas

**begiratoki**
*Hornidurak.*
Paisaia bati begira egoteko lekua, normalean horretarako egokitua.
**es** mirador

**beilatoki**
*Hornidurak.*
Hildako pertsonen gorpuak, ehortzi aurretik, gordetzen dituen etxe edo instalazioa.
**es** tanatorio
**fr** funérarium

**belai**
Ik. belardi

**belardi**
Sin. belai
*Lur-erabilerak.*
Belarra, berezkoa edo ereina, hazten den lur-eremua, normalean laua.
**es** prado; pradera
**fr** prairie

**belodromo**
*Hornidurak.*
Txirrindulari-lasterketa jakin batzuk egiteko pista berezia; pista hori duen eraikina.
**es** velódromo
**fr** vélodrome

**berotegi**
*Industria.*
Barazkiak, loreak, fruta-arbolak eta bestelako landareak berezko garaitik kanpo hazteko egokitutako instalazioa.
**es** invernadero
**fr** serre

**biblioteka**
Ik. liburutegi

**bide**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Bertatik ibiltzeko prestaturiko lurzerrenda, bidezidorra baino zabalagoa.
**es** camino
**fr** chemin

**bidegorri**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Bizikletak ibiltzeko eratzen den bide berezia.
**es** carril bici; bidegorri
**fr** piste à vélos

**bidegurutze**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Zenbait bide gurutzatzen diren lekua.
**es** cruce
**fr** croisement; carrefour

**bidezidor**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Mendi edo landetako bide meharra, oinezko edo abereentzakoa.
**es** sendero; senda
**fr** sentier

**bidezubi**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Errepide edo trenbideak sakonune bat gurutza dezan egiten den zubimoduko eraikuntza luzea.
**es** viaducto
**fr** viaduc

**bihurgune**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Bide, errepide edo antzekoetan, norabide zuzenetik aldentzen den ibilbide-zati kurbatua.
**es** curva; revuelta
**fr** virage

**biltzar-jauregi**
*Hornidurak.*
Ekipamendu soziokulturaleko eraikin handi eta publikoa, biltzarrak, hitzaldiak edo bestelako ekitaldiak egiteko instalazioak dituena.
**es** palacio de congresos
**fr** palais des congrès

**birziklatze-instalazio**
*Industria.*
Autoak, etxetresna elektrikoak, olioa, pilak, beira eta bestelako materialak birziklatzeko instalazioa.
**es** instalación de reciclaje
**fr** installation de recyclage

**bizkar**
*Orografia.*
Lurreko goragune txiki eta luzanga.
**es** loma

**biztanle-entitate**
*Banaketa politiko-administratiboa.*
Udalerri barnean garbiro bereizitako area populagarria, normalean populatua, eta inolako nahasmen-arriskurik gabe identifikatzen duen izendapen bat duena.
**es** entidad de población

**bokale**
Ik. ibai-aho

**borda**
*Bizigune iraunkorrak.*
Mendi edo basoko etxola edo etxe modukoa, bereziki abereak edo belarra gordetzekoa.
**es** borda; chabola
**fr** hutte; refuge

**burdinbide**
Ik. trenbide

**burdinola**
*Hornidurak.*
Burdin minerala landu eta burdina lortzen den lantegia.
**es** ferrería
**fr** forge

**burtsa**
*Hornidurak.*
Balore-tituluen eskaintzak eta eskaerak bitartekarien bidez trukatzeko erakundearen eraikina.
**es** bolsa
**fr** bourse

# D

**dantzaleku**
*Hornidurak.*
Dantzan egiteko areto edo eraikina.
**es** sala de fiestas; discoteca
**fr** discothèque; boîte de nuit

**dartsena**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Portu bateko tokirik babestuena, itsasontziak atrakatuta egoteko egokiena eta karga eta deskargako instalazioak dituena.
**es** dársena
**fr** darse; bassin portuaire

**denda**
*Hornidurak.*
Kontsumo-produktuak jendaurrean, eta normalean txikizka, saltzen diren leku edo etxea.
**es** tienda
**fr** boutique; magasin

**departamendu**
*Banaketa politiko-administratiboa.*
Frantziako administrazio-sisteman, administrazio-barruti nagusietako bakoitza, burutzat prefeta duena.
**es** departamento
**fr** département

**dike**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Urari eusteko, bideratzeko edo urak sor litzakeen kalteak eragozteko egiten den oztopo artifiziala.
**es** dique
**fr** digue

**dorre**
*Bizigune iraunkorrak.*
Zabal baino nabarmenki altuagoa den eraikuntza.
**es** torre
**fr** tour

**dorretxe**
*Hornidurak.*
Dorre itxurako etxe sendoa.
**es** casa-torre

**edanleku**
*Hidrografia.*
Abereei edaten ematen zaien lekua.
**es** abrevadero
**fr** abreuvoir

# E

**egoitza**
*Hornidurak.*
Lanbidez, adinez, egoeraz edo beste arrazoi batengatik kidekoak diren pertsonen bizilekua den etxe edo eraikina.
**es** residencia
**fr** foyer

**egutera**
*Orografia.*
Eguzkiak argitu eta berotzen duen alderdia edo mendi-aldea.
**es** carasol; solana
**fr** endroit

**eliza**
*Hornidurak.*
Kristau-erlijioko tenplua.
**es** iglesia
**fr** église

**elkarrekiko**
*Banaketa politiko-administratiboa.*
Bi udal edo gehiagoren arteko mugan dagoen lur-multzoa, udal horietako edozeinek erabil edo ustia dezakeena, bereziki bazkaleku gisa.
**es** facería; facero

**elordi**
*Lur-erabilerak.*
Elorriak dauden lekua.
**es** espinar
**fr** épinaie

**elurtegi**
*Orografia.*
Urte osoan elurtuta irauten duen lur-eremua, udan ere urtzen ez dena.
**es** nevero
**fr** puits à glace; glacière

**elurzulo**
*Hornidurak.*
Elurra gordetzeko eta kontserbatzeko prestatzen zen tokia.
**es** nevera
**fr** glacière

**enklabe**
*Banaketa politiko-administratiboa.*
Udal baten eskumenekoa den lur-eremua, beste udal batenak diren lurrez erabat inguratuta dagoena.
**es** enclave
**fr** enclave

**epaitegi**
*Hornidurak.*
Justizia-administrazioan, pertsona bakarreko organo judiziala dagoen lekua.
**es** juzgado
**fr** tribunal

**eraikuntza-enpresa**
*Industria.*
Eraikuntza-lanetan dihardüen enpresa.
**es** constructora; empresa constructora
**fr** entreprise de construction

**erakustazoka**
*Hornidurak.*
Merkataritza-helburuarekin produktu-erakusketak egiteko leku edo eraikina.
**es** feria de muestras
**fr** foire-exposition

**eremu babestu**
Ik. natur gune babestu

**erlategi**
*Industria.*
Erlauntzak dauden lekua.
**es** abejera; colmenar
**fr** rucher

**ermita**
Sin. baseliza
*Hornidurak.*
Gehienetan herriguneetatik kanpo egoten den kapera edo santutegi txikia.
**es** ermita
**fr** ermitage

**erpin geodesiko**
*Hornidurak.*
Latitudea eta longitudea zorroztasun handiz zehaztuta duen puntua, behaketa eta neurketa geodesikoetan erabilia; bereziki, leku hori adierazten duen seinale edo mugarri berezia.
**es** vértice geodésico
**fr** point géodésique

**erraustegi**
*Industria.*
Hondakinak edo beste zernahi gauza errauts bihurtu arte erretzeko prestatutako instalazioa.
**es** incineradora
**fr** incinérateur

**errefinategi**
*Industria.*
Substantzia edo produktu bat errefinatzeko industria-instalazioa.
**es** refinería
**fr** raffinerie

**erreka**
Sin. errekasto; lats
*Hidrografia.*
Emari txikiko ur-korrontea.
**es** arroyo; regata
**fr** ruisseau

**erreka-zulo**
*Orografia.*
Arroila txiki eta sakona, ur-korronteen higaduraz sortua.
**es** barranco
**fr** ravin

**errekasto**
Ik. erreka

**errepikagailu**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Telebista-uhinen edo bestelako uhinen emisorea, normalean potentzia txikikoa eta emisore nagusi batetik jasotako seinalea erabiltzen duena.
**es** repetidor
**fr** relais

**erreten**
*Hidrografia.*
Ubide txikia, ura errotara, soroetara edo beste norabait eramaten duena.
**es** acequia
**fr** rigole

**erribera**
Sin. ibaiertz
*Orografia.*
Ibai baten ertzean edo ibaitik gertu dagoen lurraldea, bereziki laua.
**es** ribera
**fr** rive

**erroitz**
Ik. amildegi

**errota**
*Hornidurak.*
Aleak ehotzeko tresneria duen etxea.
**es** molino
**fr** moulin

**eskailera**
*Bizigune iraunkorrak.*
Mailaz eratutako bide-zati edo kalea.
**es** escalera
**fr** escalier

**eskalada-gune**
*Hornidurak.*
Eskaladan aritzeko leku aproposa, natural nahiz artifiziala.
**es** zona de escalada
**fr** site d’escalade

**eskola**
*Hornidurak.*
Zerbait irakatsi eta ikasten den lekua; bereziki, lehen hezkuntza eskaintzen duen hezkuntza-zentroa.
**es** escuela
**fr** école

**eskualde**
*Banaketa politiko-administratiboa.*
Ezaugarri edo irizpide jakin batzuen arabera nolabaiteko batasuna azaltzen duen udal-multzo edo lurraldea.
**es** comarca
**fr** contrée

**eskualde-errepide**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Zirkulazio handirik izan gabe, elkarren ondoko eskualdeak edo eskualde barneko hirigune garrantzitsuak komunikatzen dituen errepidea.
**es** carretera comarcal
**fr** route départamentale

**esne-zentral**
*Industria.*
Eskualde bateko esne-ekoizpena zentralizatu, tratatu eta kontsumorako prestatzen duen fabrika.
**es** central lechera
**fr** centrale laitière

**espetxe**
*Hornidurak.*
Zigor batera kondenatuak eta prebentzio-egoeran daudenak giltzapean edukitzeko prestaturiko eraikuntza.
**es** institución penitenciaria
**fr** établissement pénitentiaire

**estadio**
*Hornidurak.*
Taldekako kirolak eta atletismo probak egiteko behar diren instalazioak dituen lekua, harmailaz hornitua.
**es** estadio
**fr** stade

**estatu**
*Banaketa politiko-administratiboa.*
Izaera subiranoko unitate politikoa, lurralde mugatu batean finkatua eta botere juridiko-politiko instituzionalizatua duena.
**es** estado
**fr** état

**estatu-ordezkaritza**
*Hornidurak.*
Estatuko administrazioak Euskal Herrian duen ordezkari baten egoitza.
**es** delegación estatal

**estuario**
*Hidrografia.*
Ibai-aho zabal eta sakona, ibaiuren eta, batez ere, itsasaldien eraginez sortua.
**es** estuario
**fr** estuaire

**etorbide**
Ik. hiribide

**etxe**
*Bizigune iraunkorrak.*
Gizakia bizitzeko prestatutako eraikina.
**es** casa
**fr** maison

**etxola**
Ik. txabola

**etze**
Sin. alfer-lur
*Lur-erabilerak.*
Landu gabe uzten den lurra.
**es** baldío; erial
**fr** terrain en friche; friche

**eukalipto-sail**
*Lur-erabilerak.*
Eukalipto-zuhaitz landatuz eratutako saila.
**es** eucaliptal; plantación de eucaliptus
**fr** plantation d’eucalyptus

**Eusko Jaurlaritza**
*Hornidurak.*
Euskal Autonomia Erkidegoa gobernatzen duen erakundea dagoen eraikuntza.
**es** Gobierno Vasco

**ezkamezti**
*Lur-erabilerak.*
Ezkametz-basoa.
**es** quejigal
**fr** rouvraie

**ezpeldi**
*Lur-erabilerak.*
Ezpel asko dagoen tokia.
**es** bojedal; bujedo
**fr** buissière

**ezproi**
*Orografia.*
Mendi-adar labur eta malkartsua.
**es** espolón
**fr** éperon

# F

**fabrika**
*Industria.*
Lehengaiak produktu erdilandu edo azken hauek produktu landu bihurtzen diren eraikuntza.
**es** fábrica
**fr** usine

**fabrika-tximinia**
*Hornidurak.*
Fabrika bateko tximinia, bereziki, fabrika bota ondoren monumentu edo apaingarri moduan uzten dena.
**es** chimenea de fábrica
**fr** cheminée d’usine

**foru-aldundiaren jauregi**
Ik. foru-diputazioaren jauregi

**foru-diputazioaren jauregi**
Sin. foru-aldundiaren jauregi
*Hornidurak.*
Hego Euskal Herriko lurralde historiko bakoitzeko diputatuek osatzen duten erakundea dagoen eraikuntza.
**es** palacio de la diputación foral

**foru-erkidego**
Ik. autonomia erkidego

**fruta-arbolak**
*Lur-erabilerak.*
Frutak ematen dituzten arbolak.
**es** frutales; árboles frutales
**fr** arbres fruitiers

**funikular**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Malda oso bortitzak igotzeko erabiltzen den tren berezia, kable edo kate bidezko trakzioa duena.
**es** funicular
**fr** funiculaire

**futbol-zelai**
*Hornidurak.*
Futbolean jokatzeko prestatutako zelaia.
**es** campo de fútbol
**fr** terrain de football

# G

**gailur**
Ik. tontor

**gailur-lerro**
*Orografia.*
Haitz-goraguneen hurrenkeraz eratutako gailur-aldea.
**es** cresta; crestería
**fr** crête

**galdategi**
*Industria.*
Metalak eta aleazioak galdatzen diren fabrika.
**es** fundición
**fr** fonderie

**galtzada**
*Hornidurak.*
Harriz, bereziki harlanduz, eginiko bidea.
**es** calzada
**fr** chaussée

**gasbide**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Gasa distantzia luzeetara garraiatzeko metalezko tutueria.
**es** gasoducto
**fr** gazoduc

**gasolina-zerbitzugune**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Motor-ibilgailuak hornitzeko, bereziki erregaiz hornitzeko, instalazio-multzoa.
**es** gasolinera; estación de servicio
**fr** station-service

**gatzaga**
*Hornidurak.*
Gatza lurretik, iturri gazietatik edo itsasotik ateratzen den lekua.
**es** salina
**fr** saline

**gaztelu**
*Hornidurak.*
Harresi, horma gotor, dorre eta bestelako babes-elementuez inguratu eta sendotutako eraikina edo eraikin-multzoa.
**es** castillo
**fr** château

**geraleku**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Garraio publikoetako ibilbidean, bidaiariak jaitsi eta igotzeko lekua, eraikin xumekoa edo eraikinik gabea.
**es** apeadero
**fr** halte

**gizarte-laguntzako zentro**
*Hornidurak.*
Premia duenari laguntza eskaintzeko leku publikoa.
**es** centro de asistencia social
**fr** centre de services sociaux

**goi-lautada**
*Orografia.*
Altuera handiko lurralde lau eta zabala.
**es** meseta; plana
**fr** plateau

**goi-tentsioko dorre**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Goi-tentsioko energia elektrikoa garraiatzen duen lineari eusteko egitura.
**es** torre de alta tensión
**fr** tour à haute tension

**goi-tentsioko linea**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Goi-tentsioko energia elektrikoa garraiatzen duen linea.
**es** línea de alta tensión
**fr** ligne à haute tension

**golf-zelai**
*Hornidurak.*
Golfean jokatzeko prestatutako zelaia.
**es** campo de golf
**fr** terrain de golf

**golko**
*Hidrografia.*
Itsasoak kostaldean eratzen duen sargune handia.
**es** golfo
**fr** golfe

**gotorleku**
*Hornidurak.*
Gotor babesturiko leku edo esparrua, lurralde jakin bat defendatzen zuena.
**es** fuerte
**fr** fort

**gurbizti**
*Lur-erabilerak.*
Gurbitzez beteriko lekua.
**es** madroñal; bortal
**fr** lieu planté d’arbousiers

**gurutze**
*Hornidurak.*
Gehienetan bidegurutzeetan ezarri ohi zen harrizko oroigarria, Jesukristo hil zen urkabea irudikatzen duena eta, zenbaitetan, erliebe eta eskulturaz apaindua.
**es** crucero
**fr** croix

**gurutze**
*Hornidurak.*
Jesukristo hil zen tresna irudikatzen duen oroitarria.
**es** cruz
**fr** croix

# H

**haitz**
*Orografia.*
Harria azaleratzen den lekua, goialde nahiko malkartsua eratzen duena.
**es** peña
**fr** rocher

**haitz-punta**
*Orografia.*
Tontor zorrotz eta malkartsua.
**es** pico
**fr** pic

**haitzarte**

*Orografia.*

Eremu menditsuko pasabide oso sakon eta estua.

**es** desfiladero
**fr** défilé

**haitzulo**

Sin. koba

*Orografia.*

Lur azpiko barrunbea, kanpoaldera irekia.

**es** cueva
**fr** grotte

**haran**

Sin. ibar

*Orografia.*

Mendiz edo lurralde altuagoez inguratutako sakonune luzanga, ibai, erreka edo glaziar baten higaduraz sortua.

**es** valle
**fr** vallée

**hareatza**

*Orografia.*

Hondar edo harearen metaketaz ur-ertzean sortutako eremua.

**es** arenal
**fr** étendue de sable

**haremun**

*Orografia.*

Hareazko muino edo mendixka, haizearen eraginez sortua.

**es** duna
**fr** dune

**harizti**

*Lur-erabilerak.*

Haritz-basoa.

**es** robledal
**fr** chênaie

**harpe**

*Orografia.*

Babesa eskaintzen duen harkaizpeko aterpea.

**es** abrigo
**fr** abri sous roche

**harresi**

*Hornidurak.*

Harrizko murru edo horma gotorra, bereziki gaztelu edo hiri bat inguratzen duena.

**es** muralla
**fr** muraille

**harrespil**

*Hornidurak.*

Lurrean gune biribil bat mugatzen duten harriz osatutako monumentu megalitikoa.

**es** cromlech
**fr** cromlech

**harri-lubeta**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Itsas hondora botatako harriz osatzen den egitura, kai baten zimendua eratzeko edo olatu edo korronteen kontrako babesa eskaintzeko.

**es** escollera
**fr** enrochement

**harritza**

*Orografia.*

Harri asko, jausitakoak bereziki, dauden lekua.

**es** pedriza; canchal
**fr** éboulis

**harrobi**

*Industria.*

Harria, bereziki eraikuntzarakoa, ateratzen den tokia.

**es** cantera
**fr** carrière

**haurtzaindegi**

*Hornidurak.*

Haur txikiak, bereziki eskolan hasi aurreko adinekoak, zaintzen diren leku edo etxea.

**es** guardería
**fr** crèche

**hegal**

Sin. mazela

*Orografia.*

Mendi edo bestelako goragune baten albo edo alderdi maldatsua.

**es** ladera
**fr** versant

**heliportu**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Helikopteroak lurreratzeko edo aireratzeko prestaturiko aireportu berezia.

**es** helipuerto
**fr** héliport

**herri**

*Bizigune iraunkorrak.*

Etxe edo bizilekuen multzo egituratua, hiria baino txikiagoa.

**es** pueblo
**fr** village

**herri hustu**

*Bizigune iraunkorrak.*

Biztanlerik gabe geratutako herria.

**es** despoblado; mortuorio

**herriko etxe**

Ik. udaletxe

**hidrokarburoak erauzteko plataforma**

*Industria.*

Hidrokarburo-hobietatik hainbat gai erauzteko itsasoan eratutako plataforma.

**es** plataforma de extracción de hidrocarburos
**fr** plate-forme pour l’extraction d’hydrocarbures

**hilerri**

*Hornidurak.*

Hilotzak ehorzteko prestaturiko eremua, gehienetan hesitua.

**es** cementerio
**fr** cimetière

**hiltegi**

*Industria.*

Abereak kontsumo publikorako hiltzen diren eraikuntza.

**es** matadero
**fr** abattoir

**hipodromo**

*Hornidurak.*

Zaldi-lasterketak egiteko prestaturiko leku edo zelaia.

**es** hipódromo
**fr** hippodrome

**hiri**

*Bizigune iraunkorrak.*

Etxe eta eraikinen multzo egituratu garrantzitsua, bereziki hirugarren sektoreko jardueraetan aritzen den biztanleria duena.

**es** ciudad
**fr** ville; cité

**hiri-auzo**

*Bizigune iraunkorrak.*

Hiri edo populazio-gune handi bat banatzen den zati nagusietako bakoitza.

**es** barrio urbano
**fr** quartier urbain

**hiri-parke**

*Bizigune iraunkorrak.*

Hirigune barruan aisialdirako eratutako esparru publikoa, zuhaitzak, landareak eta bestelako instalazioak dituena.

**es** parque urbano
**fr** parc urbain

**hiribide**

Sin. etorbide

*Bizigune iraunkorrak.*

Hiri-barneko bide edo kale zabala, gehienetan zuhaitzak dituena alboetan.

**es** avenida
**fr** avenue

**hodi**

*Hidrografia.*

Fluido bat garraiatu edo bideratzeko erabiltzen den elementu zilindrikoa.

**es** tubería
**fr** tuyauterie

**hondartza**

*Orografia.*

Itsaso, aintzira edo ibaietako urertzean eratzen den harea edo hartxintxarrezko metaketa.

**es** playa
**fr** plage

**hotel**

*Hornidurak.*

Diru truke jan eta lo egiten den eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen dituen ostatua.

**es** hotel
**fr** hôtel

**hustubide**

*Hidrografia.*

Hondakin-ura isurtzen den lekua.

**es** desagüe
**fr** déversoir

# I

**ibai**

*Hidrografia.*

Itsaso, aintzira edo beste ibai baterantz ibilgu bat jarraitzen duen urkorronte naturala, urte osoan zehar etengabe ura duena.

**es** río
**fr** fleuve

**ibai-aho**
Sin. bokale
*Hidrografia.*
Ibai bat itsasoratzen den lekua.
**es** boca; desembocadura
**fr** embouchure

**ibaiertz**
Ik. erribera

**ibar**
*Lur-erabilerak.*
Ibai batetik hurbil dagoen eremua, lur lau eta emankorrekoa.
**es** vega
**fr** vallée fertile

**ibar**
Ik. haran

**ibarbaso**
Sin. zaldu
*Lur-erabilerak.*
Zuhaitz eta zuhaixkaz betetako ibaiertz edo erriberako lekua.
**es** soto; bosque de ribera
**fr** forêt riveraine

**ibarbide**
*Orografia.*
Horma leuneko sakonune arina, ura bildu eta bideratzen duena baina harana sortu gabe.
**es** vaguada

**ibi**
*Hidrografia.*
Ibaietan, uraren sakonera txikiagoa delako erraz gurutza daitekeen lekua.
**es** vado
**fr** gué

**ibiltoki**
Ik. pasealeku

**idoi**
Sin. putzu
*Hidrografia.*
Aintzira txiki edo oso txikia, zenbaitetan aldizkakoa.
**es** charca; balsa
**fr** mare

**igerileku**
*Hornidurak.*
Bainatzeko, igeri egiteko edo igeriketa-kiroletan aritzeko prestaturiko ur-masa berezia; ur-masa hori duen eraikina.
**es** piscina
**fr** piscine

**ikastetxe**
*Hornidurak.*
Irakaskuntzako edozein maila, baina bereziki lehen edo bigarren hezkuntza, eskaintzen duen etxea.
**es** colegio
**fr** collège

**ikastola**
*Hornidurak.*
Lehen eta bigarren hezkuntzako euskal ikastetxe berezia, euskara bultzatzeko sortua.
**es** ikastola
**fr** ikastola

**ikerketa-zentro**
*Hornidurak.*
Ikerketa-jarduerak egiteko prestaturiko eraikina.
**es** centro de investigación
**fr** centre de recherche

**ikuztegi**
*Hidrografia.*

Arropa edo mea garbitzeko erabiltzen zen eraikuntza, gaur egun gehienbat apaingarri gisa erabilia.

**es** lavadero
**fr** lavoir

**industrialde**
*Industria.*

Fabrika edo industria-eraikinak ezartzeko eratutako eremu berezia.

**es** polígono industrial
**fr** zone industrielle

**instalazio militar**
*Hornidurak.*

Armadarentzat eta bere jarduerarentzat prestaturiko eraikuntza edo eraikuntza-multzoa.

**es** instalación militar
**fr** installation militaire

**institutu**
*Hornidurak.*

Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza eskaintzen duen hezkuntza-zentro publikoa.

**es** instituto
**fr** lycée

**iratze-leku**
*Lur-erabilerak.*

Iratzez betetako lekua.

**es** helechal
**fr** fougeraie

**irtengune**
*Orografia.*

Inguruko erliebetik kanporantz nolabait nabarmentzen den erliebezatia.

**es** resalte
**fr** saillie

**itsasadar**
*Hidrografia.*

Lehorrean barneratzen den itsas zatia, ibai-haran baten itsasertzeko zona urperatzearen ondorioz eratua.

**es** ría
**fr** ria

**itsasargi**
*Komunikabideak eta garraioak.*

Itsasbazter edo portuetako dorrea, goialdean argia duena itsasontziak gauez gidatzen laguntzeko.

**es** faro
**fr** phare

**itsasarte**
*Hidrografia.*

Kostaldearen eta ondoko uharte baten arteko itsas pasabidea.

**es** bocana

**itsasbazter**
Ik. kostalde

**itsaso**
*Hidrografia.*

Ur gazizko masa handia, berezko ezaugarri batzuen arabera bereizten dena.

**es** mar
**fr** mer

**iturburu**
*Hidrografia.*

Lur azpitik lurrazalera kanporatzen den ur-etorria.

**es** manantial; surgencia
**fr** source

**iturri**
*Hidrografia.*
Urari, hodien bidez, aterabidea eskaintzeko egiten den eraikuntza.
**es** fuente
**fr** fontaine

**jatetxe**
*Hornidurak.*
Janari-edariak zerbitzatzen diren etxea.
**es** restaurante
**fr** restaurant

**jauregi**
*Hornidurak.*
Eraikin handi eta dotorea, agintari edo noble baten bizilekua; hedaduraz, monumentu-izaerako eraikin publikoa.
**es** palacio
**fr** palais

**jolas-parke**
*Hornidurak.*
Dibertitzeko jolasak eta bestelako jarduera eta ikuskizunak biltzen dituen instalazio-multzoa.
**es** parque de atracciones
**fr** parc d’attractions

**justizia-jauregi**
*Hornidurak.*
Justizia-administrazioko hainbat areto hartzen dituen eraikin publikoa.
**es** palacio de justicia
**fr** palais de justice

# K

**kai**
Sin. nasa
*Komunikabideak eta garraioak.*
Portuetan, pertsonak eta zamak ontziratzeko edo lehorreratzeko egiten den eraikuntza.
**es** muelle
**fr** quai

**kala**
*Hidrografia.*
Senadi txikia.
**es** cala
**fr** crique

**kale**
Sin. karrika
*Bizigune iraunkorrak.*
Hiri edo herrietan, bi etxe-lerroren arteko bidea.
**es** calle
**fr** rue

**kalezulo**
*Bizigune iraunkorrak.*
Kale estu eta motza, batzuetan itsua.
**es** callejón
**fr** ruelle

**kanal**
Ik. ubide

**kanpin**

*Hornidurak.*

Aire zabalean kanpatzean datzan turismo-mota egiteko prestatutako eremua.

**es** camping
**fr** camping

**kantoi**

*Bizigune iraunkorrak.*

Kale nagusi batetik bestera doan kale perpendikular eta txikia.

**es** cantón

**kantonamendu**

*Banaketa politiko-administratiboa.*

Frantziako administrazio-sisteman, hiri nagusi edo departamendu bat banatzen den barrutietako bakoitza.

**es** cantón
**fr** canton

**karobi**

*Hornidurak.*

Kareharria kiskaliz kare bizia egiteko erabiltzen den labea.

**es** calera
**fr** four à chaux

**karrika**

Ik. kale

**katedral**

*Hornidurak.*

Elizbarruti bateko apezpiku-eliza, elizbarruti horretako eliza nagusia.

**es** catedral
**fr** cathédrale

**kirol-klub**

*Hornidurak.*

Kirol-jardueraren bat egiteko kluba.

**es** club deportivo
**fr** club sportif

**kiroldegi**

*Hornidurak.*

Hainbat kirol egiteko prestaturiko leku edo eraikina.

**es** polideportivo
**fr** salle omnisport

**klinika**

*Hornidurak.*

Medikuntza-arlo bateko edo batzuetako sendagileak aritzen diren erietxea, bereziki pribatua.

**es** clínica
**fr** clinique

**koba**

Ik. haitzulo

**kolegiata**

*Hornidurak.*

Kolegio-eliza, kalonje-kolegio batek zaindu eta zerbitzatzen duena.

**es** colegiata
**fr** collégiale

**komentu**

*Hornidurak.*

Erlijio-ordena bateko kideak bizi diren etxea.

**es** convento
**fr** couvent

**kontrol-dorre**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Aireportuetan, lurreratzeak, aireratzeak eta aire-zirkulazioa zuzentzen duten pertsona eta azpiegiturak hartzen dituen eraikin altua.

**es** torre de control
**fr** tour de contrôle

**kontserba-fabrika**

*Industria.*

Janari-kontserbak egiten dituen fabrika.

**es** conservera; fábrica de conservas
**fr** fabrique de conserves

**kontsultategi**

*Hornidurak.*

Osasun-zentrorik ez dagoen populazio-guneetan, osasun-zentro bateko unitateko mediku batek edo gehiagok modu ez-iraunkorrean osasun-arreta eskaintzen duen lekua.

**es** consultorio
**fr** cabinet de consultation

**kontzeju**

Sin.: administrazio-batzar

*Banaketa politiko-administratiboa.*

Udalerria baino hedadura txikiagoko lurraldean eskumena duen toki-entitatea, nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena duena.

**es** concejo; junta administrativa

**kortabaso**

*Lur-erabilerak.*

Zuhaizti edo larre mugatua; zirkulu biribil-biribila da, erdian izan ohi duen harri bat erreferentziatzat hartuta eratua.

**es** sel

**kostalde**

Sin. itsasbazter

*Orografia.*

Itsasoa ukitzen duen edo bertatik hurbil dagoen lur-eremua.

**es** costa
**fr** côte

**kremailera-trenbide**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Kremaileraren teknikaz baliatzen den trenbide berezia.

**es** ferrocarril de cremallera
**fr** chemin de fer à crémaillère

**kuadrilla**

*Banaketa politiko-administratiboa.*

Araba historikoki banatzen den zazpi barruti nagusietako bakoitza.

**es** cuadrilla

**kultura-etxe**

*Hornidurak.*

Kulturaren inguruko ekimen eta jarduerak sustatzen diren eraikin publikoa.

**es** casa de cultura

# L

**labar**

*Orografia.*

Horma malkartsu eta bertikala; bereziki itsasertzekoa, olatuen jardunak eratua.

**es** acantilado
**fr** falaise

**labe**
*Hornidurak.*
Barnean duen materiala berotzeko edo beroaren bidez eraldatzeko erabiltzen den eraikuntza.
**es** horno
**fr** four

**labe garai**
*Industria.*
Burdina galdatzeko zutikako upela-labe handia, jarraian lan egiten duena.
**es** alto horno
**fr** haut fourneau

**lahardi**
*Lur-erabilerak.*
Laharrez beteriko lekua.
**es** zarzal
**fr** ronceraie

**laiotz**
Ik. ospel

**lanbide-heziketako ikastetxe**
*Hornidurak.*
Lanbide edo jarduera profesional bateko edukiak landu eta praktikan trebatzeko irakaskuntza eskaintzen duen eskola.
**es** centro de formación profesional
**fr** centre de formation professionnelle

**landa-etxe**
*Hornidurak.*
Landan edo nekazari-ingurunean turismoa egiteko prestatuta dagoen etxea.
**es** casa rural

**langa**
*Hornidurak.*
Esparru edo bide bateko sarbidea ixteko zeharka jartzen den haga-multzoa edo funtzio hori betetzen duen edozein egitura.
**es** barrera; cancilla
**fr** barrière

**larrain**
*Lur-erabilerak.*
Uzta eultzitzen den leku laua, lur irmokoa.
**es** era
**fr** aire

**larre**
*Lur-erabilerak.*
Abereak bazkatzen diren leku belartsu eta irekia.
**es** pastizal
**fr** pâturage

**lats**
Ik. erreka

**lautada**
*Orografia.*
Lurralde lau eta zabala, altuera ez oso handikoa.
**es** llanada
**fr** plaine

**legebiltzar**
Sin. parlamentu
*Hornidurak.*
Aurrekontuak eta legeak onartzea eta gobernuaren jarduera kontrolatzea helburu duen batzarra biltzen den eraikina.
**es** parlamento
**fr** parlement

**lehentasuneko errepide**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Ibilgailuentzako lehen mailako errepidea; nazioarteko ibilbideak, erkidegoen arteko ibilbide luzeak eta salgai astun eta arriskutsuen zirkulazio sarria bideratzen dituena.

**es** carretera de interés preferente

**lehorreko lur**

*Lur-erabilerak.*

Euri-ura beste ureztatzerik jasotzen ez duen laborantza-lurra.

**es** secano
**fr** champ de culture sèche

**leize**

*Orografia.*

Barrunbe karstiko bertikal eta sakona, lurrazalera irekia.

**es** sima
**fr** gouffre

**lepo**

*Orografia.*

Bi tontorren arteko sakonune arina, igarobide izan ohi dena.

**es** collado; portillo
**fr** col

**liburutegi**

Sin. biblioteka

*Hornidurak.*

Liburuak, bertan edo maileguan harturik irakurtzeko, sailkatuta gordetzen dituen eraikina.

**es** biblioteca
**fr** bibliothèque

**lubaki**

*Orografia.*

Lurrazaleko ur-etorriek sortutako ildo estua.

**es** cárcava
**fr** fossé

**lur ureztatu**

*Lur-erabilerak.*

Ureztaketa ugariaren beharra duten landareak erein eta lantzen diren lurra.

**es** regadío
**fr** terrain d’irrigation

**lurmutur**

*Orografia.*

Itsasoan barneratzen den lur-irtengunea.

**es** cabo
**fr** cap

**lurralde historiko**

*Banaketa politiko-administratiboa.*

Euskal Herria banatzen den probintzietako bakoitza.

**es** territorio histórico

**lurreratzeko pista**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Hegazkinak lurreratzeko edo aireratzeko prestaturiko bide zabal eta laua.

**es** pista de aterrizaje
**fr** piste d’atterrissage

# M

**mahasti**
*Lur-erabilerak.*
Mahatsondoak landatuta dauden lur-saila.
**es** viña; viñedo
**fr** vignoble

**malda**
Ik. aldapa

**malkar**
*Orografia.*
Malda bortitz eta latza, haitzez betea.
**es** escarpe
**fr** escarpement

**mankomunitate**
*Banaketa politiko-administratiboa.*
Guztiena den helburu bat elkarren artean lortzeko hainbat udalerrik eratzen duten elkargoa.
**es** mancomunidad

**mazela**
Ik. hegal

**meandro**
*Hidrografia.*
Ibai baten ibilguak eratzen duen bihurgune itxia.
**es** meandro
**fr** méandre

**meatzaritza-instalazio**
*Hornidurak.*
Meatzaritzako jardueran erabiltzen zen instalazioa (karga-lekua, mea garraiatzeko tresneria, etab.).
**es** instalación minera
**fr** installation minière

**meatze**
*Industria.*
Lurretik mineral erabilgarriak ateratzen diren lekua eta instalazio-multzoa.
**es** mina
**fr** mine

**mendate**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Mendi arteko igarobidea eratzen duen sakonune bat zeharkatzeko funtzioa duen errepide-zati aldapatsu eta bihurgunetsua.
**es** puerto
**fr** col; port

**mendi**
*Orografia.*
Inguruko lurretatik nabarmentzen den altuera handiko goragunea.
**es** monte; montaña
**fr** montagne

**mendi-adar**
*Orografia.*
Mendi, mendi-multzo edo mendikate batetik abiatzen den bigarren mailako lerroa.
**es** ramal
**fr** ramification

**mendi-hobi**

*Orografia.*

Lur-goragunez inguratutako sakonune itxia.

**es** hoya

**mendigune**

*Orografia.*

Mendiak nagusi izanik, hainbat elementu geografikoz (mendi, haran, ordoki, aintzira, etab.ez) osatutako multzoa, norabide orokor bat ez duena.

**es** macizo
**fr** massif

**mendikate**

*Orografia.*

Mendiak nagusi izanik, hainbat elementu geografikoz (mendi, haran, ordoki, aintzira, etab.ez) osatutako multzoa, norabide orokor bat duena.

**es** cordillera
**fr** cordillère

**mendilerro**

*Orografia.*

Norabide orokor bat jarraitzen duen mendi-multzo edo azpimultzoa.

**es** sierra

**menhir**

*Hornidurak.*

Lurrean zutik finkatutako harri luze batek eratzen duen monumentu megalitikoa.

**es** menhir
**fr** menhir

**merindade**

*Banaketa politiko-administratiboa.*

Nafarroa eta Bizkaia historikoki banatu izan diren barruti nagusietako bakoitza, antzina merio baten menpe zegoena.

**es** merindad

**merkataritza-gune**

Ik. zentro komertzial

**merkatu**

Sin. azoka

*Hornidurak.*

Elikagaiak edo bestelako salgaiak saldu eta erosteko leku edo eraikin publikoa.

**es** mercado
**fr** marché

**meteorologia-behatoki**

*Hornidurak.*

Meteorologiaren inguruko behaketa sistematikoak egiteko eraikuntza.

**es** observatorio meteorológico
**fr** observatoire météorologique

**metro**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Hiriguneetan, nagusiki lur azpitik ibiltzen den trenbide berezia.

**es** metro
**fr** métro

**metro-geltoki**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Metro-trenak gelditzen diren tokia, bidaiarientzako hainbat instalazioz hornitua.

**es** estación de metro
**fr** station de métro

**mintegi**

*Lur-erabilerak.*

Geroago beste leku batera aldatuko diren zuhaitz-landareak landatu eta hazten diren lekua.

**es** vivero
**fr** pépinière

**monasterio**

*Hornidurak.*

Fraideak edo mojak bizi diren etxe edo komentua eta horren inguruan jasotako eraikin-multzoa.

**es** monasterio
**fr** monastère

**monumentu**

*Hornidurak.*

Pertsona edo gertakari baten oroimenez egindako arkitektura edo eskulturako lana; hedaduraz, arkitektura, arte edo historiaren ikuspuntutik balio berezia duen edozein eraikuntza.

**es** monumento
**fr** monument

**mugarri**

*Hornidurak.*

Lur-sail, jabetza, etab.en muga non dagoen adierazteko jartzen den seinale edo harria.

**es** mojón
**fr** borne

**muino**

*Orografia.*

Lurreko goragune naturala, mendia baino txikiagoa eta hegal arinak dituena.

**es** colina
**fr** colline

**museo**

*Hornidurak.*

Arte, historia, teknika edo zientziaren aldetik interesgarriak diren gauzak bildu, sailkatu eta jendaurrean ikusgai jartzen diren eraikina.

**es** museo
**fr** musée

# N

**Nafarroako Gobernua**

*Hornidurak.*

Nafarroako Foru Erkidegoa gobernatzen duen erakundea dagoen eraikuntza.

**es** Gobierno de Navarra

**nasa**

Ik. kai

**natur gune babestu**

Sin. eremu babestu

*Hornidurak.*

Interes berezikoa delako edo kontserbazioa ziurtatzeko, legezko babes berezia duen eremu edo natur gunea.

**es** área protegida; espacio natural protegido
**fr** espace protégé

**nekropoli**

*Hornidurak.*

Historiaurreko edo antzinako hilobi-multzoa.

**es** necrópolis
**fr** nécropole

# O

**oihan**
Ik. baso

**olatu-horma**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Badia edo portu baten sarreran ezarritako dikea, itsasoaren eragina moteldu eta segurtasuna indartzeko egina.
**es** rompeolas
**fr** brise-lames

**olibadi**
*Lur-erabilerak.*
Olibondoak landatuta dauden lur-saila.
**es** olivar
**fr** olivaie

**oliobide**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Petrolioa distantzia luzeetara garraiatzeko metalezko tutueria.
**es** oleoducto
**fr** pipe-line

**ontziola**
*Industria.*
Itsasontziak eraiki edo konpontzen diren instalazio edo lantegia.
**es** astillero
**fr** chantier naval

**ordainleku**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Errepide edo bestelako zirkulazio-azpiegitura bat erabiltzeagatik ordaindu beharreko saria ordaintzen den lekua.
**es** peaje
**fr** péage

**ordoki**
*Orografia.*
Aldaparik gabeko lur-eremua, bereziki haranaren alde beherekoa.
**es** llano
**fr** plat

**ortu**
Ik. baratze

**orube**
*Bizigune iraunkorrak.*
Eraikuntzako lurzoru-zatia, bertan eraikitzeko izendatuta dagoena.
**es** solar
**fr** terrain à bâtir

**osasun-etxe**
Ik. osasun-zentro

**osasun-zentro**
Sin. osasun-etxe
*Hornidurak.*
Gizarte Segurantzako osasun-arreta modu global eta iraunkorrean eskaintzen duen lekua; lehen mailako arretako ekipo bat izaten da bertan, mediku koordinatzaile baten zuzendaritzapean.
**es** centro de salud
**fr** centre de santé

**osin**
*Hidrografia.*
Ibaietan, urak ohikoa baino sakonera handiagoa duen lekua.
**es** pozo fluvial; poza

**ospel**

Sin. laiotz

*Orografia.*

Eguzkiak gutxien argitu eta berotzen duen alderdia edo mendi-aldea.

**es** umbría; paco
**fr** ubac; ombrée

**ospitale**

*Hornidurak.*

Pertsonei osasun-arreta osoa (diagnosia, tratamendua eta prebentzioa) eskaintzen zaien eraikuntza, erakunde publiko edo pribatu batena izan daitekeena.

**es** hospital
**fr** hôpital

**ospitale psikiatriko**

*Hornidurak.*

Buru-gaixotasunen tratamenduan espezializatutako ospitalea.

**es** hospital psiquiátrico
**fr** hôpital psychiatrique

**ostatu**

*Hornidurak.*

Diru truke jan eta lo egiten den etxea.

**es** hostal
**fr** auberge

**otadi**

*Lur-erabilerak.*

Otea hazten den lekua.

**es** argomal
**fr** lande d'ajonc

# P

**padura**

*Hidrografia.*

Lur behere eta lokaztua, itsasaldietan itsasoko urak edo ibai-hazialdietan ibaiko urak estaltzen duena.

**es** marisma
**fr** marais salant

**pagadi**

*Lur-erabilerak.*

Pago-basoa.

**es** hayedo
**fr** hêtraie

**paper-fabrika**

*Industria.*

Papera egin eta lantzen duen fabrika.

**es** papelera
**fr** papeterie

**paradore**

*Hornidurak.*

Espainiako turismoa sustatzeko erakundeek eratutako hotel berezia, gehienetan eraikin edo leku historiko batean ezarria.

**es** parador
**fr** parador

**parke eoliko**

*Industria.*

Haizearen energia erabiliz energia elektrikoa sortzen duen instalazio-multzoa.

**es** parque eólico
**fr** parc d'éoliennes

**parlamentu**

Ik. legebiltzar

**pasabide**

*Bizigune iraunkorrak.*

Kale nagusi batetik bestera doan kale estalia.

**es** pasaje
**fr** passage

**pasealeku**

Sin. ibiltoki

*Bizigune iraunkorrak.*

Ibiltzeko edo egurasteko egokitutako leku edo bidea.

**es** paseo
**fr** promenade

**patin**

Ik. putzu

**pilotaleku**

*Hornidurak.*

Pilota-jokoan aritzeko leku edo eraikina.

**es** frontón
**fr** fronton

**pinu-sail**

*Lur-erabilerak.*

Landatutako pinuz eraturiko saila.

**es** plantación de pinos; pinar de repoblación
**fr** plantation de pins

**pinudi**

*Lur-erabilerak.*

Pinu-basoa.

**es** pinar
**fr** pinède

**pista**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Mendi aldean, ibilgailuak bertatik ibili ahal izateko eginiko bide zabal eta askotan zoladurarik gabea.

**es** pista
**fr** piste

**planetario**

*Hornidurak.*

Ganga-formako sabai batean, argien bidez, zeruak garai desberdinetan duen itxura eta astroen ibilbideak erakusten dituen instalazioa.

**es** planetario
**fr** planétarium

**plaza**

*Bizigune iraunkorrak.*

Herri barneko leku ireki eta zabala, hainbat kaleren elkargune dena.

**es** plaza
**fr** place

**polizia-instalazio**

*Hornidurak.*

Poliziarentzat eta bere jarduerarentzat prestaturiko eraikuntza edo eraikuntza-multzoa.

**es** instalación policial
**fr** installation de la police

**portu**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Itsasontziak babesean edukitzeko leku natural edo artifiziala, pertsonak ontziratu edo lehorreratzeko eta zamak kargatu eta deskargatzeko instalazioez hornitua.

**es** puerto
**fr** port

**postontzi**
*Hornidurak.*
Mendi-gailurretan jartzen den kutxa modukoa, mendizale federatuen txartelak jasotzeko erabiltzen dena.
**es** buzón
**fr** boîte

**prentsa eta irrati-telebistako instalazio**
*Hornidurak.*
Hedabide batek (prentsa, irrati edo telebistakoak) bere jarduera bideratzeko egin eta prestatutako eraikina.
**es** instalación de prensa y radio-televisión

**presa**
*Hidrografia.*
Ur-korronte bateko ura biltzeko egiten den horma edo eraikuntza.
**es** presa
**fr** barrage

**punta**
*Orografia.*
Lurmutur luzexka, normalean altuera eta luzera txikikoa.
**es** punta
**fr** pointe

**putzu**
Sin. patin
*Hidrografia.*
Lurpeko ura ateratzeko egiten den zulo bertikal eta estua.
**es** pozo
**fr** puits

**putzu**
Ik. idoi

# S

**sagardotegi**
*Industria.*
Sagardoa egin eta/edo saltzen den etxea.
**es** sidrería
**fr** cidrerie

**saihesbide**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Errepideak eta zirkulazio nagusiak hirigune bat erditik zeharka ez dezan, aldirietan zehar egiten den errepidea, hiriguneko sarrerak eta irteerak ere nolabait egituratzen dituena.
**es** variante
**fr** variante

**sakonune**
*Orografia.*
Inguruko lurrak baino baxuago dagoen lur-eremua.
**es** depresión
**fr** dépression

**salgai-biltegi**
*Komunikabideak eta garraioak.*
Salgaiak gordeta edukitzeko eraikina.
**es** depósito de mercancías
**fr** entrepôt à marchandises

**santutegi**
*Hornidurak.*
Erlijio-irudi bat edo santu baten erlikiak gurtzen diren eliza edo lekua.
**es** santuario
**fr** sanctuaire

**santutxo**

*Hornidurak.*

Herri-sarreretan izan ohi den otoitz-leku irekia, normalean gurutze edo irudi bat duena.

**es** humilladero

**sarbegi**

*Hidrografia.*

Lurrazaleko ura desagertzen den zoruko zuloa.

**es** sumidero
**fr** perte

**saroi**

*Lur-erabilerak.*

Abereak, bereziki ardiak, gauez biltzeko leku aproposa.

**es** majada
**fr** bergerie

**sastraka**

*Lur-erabilerak.*

Zuhaixka eta bestelako landare adartsu eta ez oso altuez betetako lekua.

**es** matorral
**fr** brousse

**seminario**

Ik. apaizgaitegi

**senadi**

*Hidrografia.*

Ertz edo itxura biribileko badia.

**es** ensenada
**fr** anse

**soilgune**

*Lur-erabilerak.*

Basoak inguratutako goi-eremu zabala, zuhaitz edo sastrakarik gabea.

**es** raso
**fr** terrain dénudée

**sorburu**

*Hidrografia.*

Ibai edo erreka baten sorlekua den iturburua.

**es** nacedero

**soro**

Sin. alor

*Lur-erabilerak.*

Nekazaritzan lantzen den edo landu daitekeen lur-eremua.

**es** tierra de cultivo; campo
**fr** terrain de culture; champ

**sorospen-postu**

*Hornidurak.*

Ezbehar edo larrialdiren bat dutenei berehalako arreta eskaintzeko lekua.

**es** puesto de socorro
**fr** poste de secours

**suhiltzaile-etxe**

*Hornidurak.*

Suhiltzaileen lan-egoitza nagusia, suaren kontrako aparatu, ibilgailu eta bestelako tresnak ere hartzen dituena.

**es** parque de bomberos
**fr** caserne de pompiers

**supermerkatu**

*Hornidurak.*

Kontsumo-produktuak txikizka saltzen dituen eta erosleak behar duen gehiena zuzenean hartzen duen denda handia.

**es** supermercado
**fr** supermarché

# T

**teknologia-parke**

*Hornidurak.*

Teknologia aurreratuko industria sustatzeko eratutako industrialde edo enpresa-gunea.

**es** parque tecnológico
**fr** parc technologique

**tokiko errepide**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Eskualde bateko bigarren mailako lekuak elkarrekin edo leku hauek eskualdeko erdigunearekin lotzen dituen errepidea.

**es** carretera local
**fr** route vicinale

**tontor**

Sin. gailur

*Orografia.*

Mendi edo muino baten puntu edo mailarik altuena.

**es** cima; cumbre
**fr** sommet

**tranbia**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Hiri baten barneko garraio publikoa bideratzen duen trenbide berezia.

**es** tranvía
**fr** tramway

**transformadore**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Korronte elektrikoaren tentsio edo sistema eraldatzen dituen tresneria dagoen eraikina.

**es** transformador
**fr** transformateur

**tren-geltoki**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Trenak gelditzen diren tokia, bidaiari edo salgaientzako hainbat instalazioz hornitua.

**es** estación de ferrocarril
**fr** gare de chemin de fer

**trenbide**

Sin. burdinbide

*Komunikabideak eta garraioak.*

Trena ibiltzeko bidea, bi karril paraleloz osatua.

**es** ferrocarril
**fr** chemin de fer

**trenbide ohi**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Gaur egun erabiltzen ez den trenbidea.

**es** antiguo ferrocarril
**fr** ancien chemin de fer

**trenbide-pasagune**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Trenbideak bide edo errepide bat maila berean gurutzatzen duen gunea.

**es** paso a nivel
**fr** passage à niveau

**trikuharri**

*Hornidurak.*

Zutik dauden hainbat harriz eta hauek estaltzen dituzten harlauza batzuez osatutako monumentu megalitikoa.

**es** dolmen
**fr** dolmen

**tumulu**

*Hornidurak.*

Hilobi baten gainean pilatutako lur edo harrizko metaketa artifiziala, bereziki Antzinatekoa.

**es** túmulo
**fr** tertre

**tunel**

*Komunikabideak eta garraioak.*

Lur azpiko pasabide artifiziala, garraio edo zirkulazioko bide bat bertatik pasatzeko egina.

**es** túnel
**fr** tunnel

**txabola**

Sin. etxola

*Bizigune iraunkorrak.*

Era xumean eraikitako bizileku txiki eta arrunta.

**es** cabaña; chabola
**fr** cabane

**txalet**

*Bizigune iraunkorrak.*

Familia bakarreko etxea, normalean solairu bat baino gehiagokoa eta lorategia izaten duena.

**es** chalet; villa
**fr** villa

**txatartegi**

*Industria.*

Txatarra bildu eta saltzen den tokia.

**es** chatarrería
**fr** parc à ferraille

**txilardi**

*Lur-erabilerak.*

Txilarra hazten den lekua.

**es** brezal
**fr** bruyère

# U

**ubide**

Sin. kanal

*Hidrografia.*

Ura eramateko bide artifiziala.

**es** canal
**fr** canal

**udal**

Ik. udalerri

**udal-barruti**

*Banaketa politiko-administratiboa.*

Udalerri bat administratiboki banatzen den eremuetako bakoitza.

**es** distrito municipal
**fr** arrondissement

**udalburu**
*Bizigune iraunkorrak.*
Udal bat eratzen duten auzo edo populazio-guneen artean nagusia.
**es** capital de municipio

**udaleku**
*Hornidurak.*
Haur-talde batek, begiraleekin batera, jolasean eta bestelako jarduerak eginez, udaldiko egun batzuk igarotzeko lekua.
**es** colonia de verano
**fr** colonie de vacances

**udalerri**
Sin. udal
*Banaketa politiko-administratiboa.*
Estatuko oinarrizko administrazio-barrutia, alkate eta zinegotzien eskumenean dagoena.
**es** municipio; término municipal
**fr** commune

**udaletxe**
Sin. herriko etxe
*Hornidurak.*
Udal-administrazioaren zerbitzuak hartzen dituen eta udal-bilkurak egiten diren eraikina.
**es** ayuntamiento
**fr** hôtel de ville; mairie

**uhar**
*Hidrografia.*
Ur-korronte labur, laster eta irregularra, aldika bat-bateko goraldi bortitzak izaten dituena.
**es** torrente
**fr** torrent

**uharka**
Ik. urtegi

**uharri**
Sin. arroka
*Orografia.*
Ur azaletik hurbil dagoen urpeko harkaitza, edo mareabeheran agerian geratzen dena.
**es** escollo; bajo
**fr** écueil

**uharte**
*Orografia.*
Alde guztietatik urez inguratutako lur-zatia.
**es** isla
**fr** île

**uhate**
*Hidrografia.*
Presa edo ubideetan ate modura ezartzen den xafla mugigarria, uraren igarobidea erregulatzen duena.
**es** compuerta
**fr** vanne

**ukuilu**
*Bizigune iraunkorrak.*
Azienda gordetzen den eraikina.
**es** establo
**fr** étable

**unibertsitate**
*Hornidurak.*
Goi-mailako irakaskuntza eskaintzen duen hezkuntza-zentroa.
**es** universidad
**fr** université

**upategi**

*Industria.*

Ardoa egin, landu eta gordetzen den lekua.

**es** bodega
**fr** cave

**ur-bateratze**

*Hidrografia.*

Bi ibai edo ur-korrontek bat egiten duten lekua.

**es** confluencia
**fr** confluent

**ur-biltegi**

*Hidrografia.*

Ur-masa bat erabilera jakin baterako bildu eta maila kontrolatuan mantentzeko egiten den eraikuntza.

**es** depósito
**fr** réservoir

**ur-jauzi**

*Hidrografia.*

Ura aske erortzen den lekua, ur-ibilguaren malda edo koska bortitzak eratua.

**es** cascada; salto
**fr** cascade; chute d'eau

**ur-laster**

*Hidrografia.*

Ibaietan, malda nabarmenagoa delako, ura lastertasun eta bortiztasun handiagoz jaisten den zatia.

**es** rápido
**fr** rapide

**urmael**

*Hidrografia.*

Parke, lorategi eta antzekoetan eratzen den ur-masa artifiziala.

**es** estanque
**fr** bassin

**urtegi**

Sin. uharka

*Hidrografia.*

Ibai batean presa bat eraiki eta bertako ura bilduz sortzen den aintzira artifiziala.

**es** embalse
**fr** barrage; lac de barrage

# Z

**zabortegi**

*Industria.*

Zaborra edo hondakinak uzten edo botatzen diren lekua.

**es** vertedero
**fr** décharge

**zaldu**

Ik. ibarbaso

**zapalda**

*Orografia.*

Erliebe aldapatsu bat eteten duen zati laua.

**es** rellano
**fr** replat

**zeharkale**

*Bizigune iraunkorrak.*

Kale nagusi batetik bestera doan kale perpendikularra.

**es** travesía
**fr** rue transversale

**zementu-fabrika**

*Industria.*

Zementua egiten duen fabrika.

**es** cementera
**fr** cimenterie

**zentral hidroelektriko**

*Industria.*

Energia hidraulikoa erabiliz energia elektrikoa sortzen duen instalazio-multzoa.

**es** central hidroeléctrica
**fr** centrale hydroélectrique

**zentral nuklear**

*Industria.*

Energia nuklearra erabiliz energia elektrikoa sortzen duen instalazio-multzoa.

